

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzua

Hasierako onespena ematea tranbiaren sistema orokorra Salburura hedatzeko Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean egin nahi den egiturazko xedapen-aldaketari

Hauxe erabaki zuen Vitoria-Gasteizko Udalbatzak 2020ko otsailaren 21ean egindako ohiko osoko bilkuran:

1. Hasierako onespena ematea Tranbiaren Sistema Orokorra Salburura hedatzeko xedez Vitoria-Gasteizko Udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean egin nahi den egiturazko xedapen-aldaketari, udal zerbitzu teknikoek 2020ko ekainean egindako proiektuaren arabera.

2. Plangintzarako Aholku Kontseiluari eskatzea plangintzaren aldaketa honi buruzko txostena egin dezan jendaurreko erakustaldiaren barruan.

3. Erabakia dosierrean ageri diren interesdun guztiei jakinaraztea.

4. Aldakuntzaren inguruko agiriak jendaurrean jartzea eta horren berri ALHAOn eta probintzian zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz ematea, edozein erakundek edo interesdunek agiriak aztertu eta hilabeteko epean egokituz jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan.

Dosierra Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25—, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 23an

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE